

I g e l d o k o



ORRI INFORMATIBOA



Igeldoko Herri Kontseilua - Itsas Aurre Kultur Etxea - Kristobal Balenziaga kalea 110 • 313030 • IGELDO

3. zenbakia

1997ko abendua

Ikastola zahartu zaigu... Klaseak Itsas Aurren

Makina bat urte iraundu du Igeldoko eskolak. Lekaime, maisu eta andereño mordoia pasa da bertatik, baita igeldotar gehienok ere. Zenbat kontu, kazkarreko, ikasgai, errieta eta momentu onak biziko ziren beren pareten artean? Hala ere, zahartu egin dela eta jubilatuko dutela dirudi.


Eskola berria

Hezkuntza sailekoek, eskolaren egoera penagariaren aurrean, beste berri bat egitearen beharra ikusi dute. Beren esanetan, Eusko Jaurlaritza prest dago dirua jartzeko, Udalak eman behar dituen baimenen zain daude eta non kokatuko den oraindik erabaki gabe dago.

Herri Kontseiluak zenbait bilera egin ditu dagoeneko eskolako ordezkariekin eta Udaleko zinegotzi batzurrekin. Donostiako Plan Orokorrak aurrikusten zuen eskola berria, eta Herri Kontseiluak, hau, kaskoaren garapenako plan partzialaren barruan ikusten du. Garapen orekatu batek eskola ere kontuan hartu behar du. Beraz, adostasun eta laguntza osoa eskainiko dio administrazioari.

Klaseak Itsas Aurren


Eskola berri bat ez da egun batetik bestera egiten. Bitartean, eskola txikia gelditu da eta Itsas Aurreko gela pare



Eskola zaharra ez dago baldintza onenetan eta Eusko Jaurlaritza prest azaldu da beste berri bat eraikitzeko.

bat erabiltzeko baimena eskatu zion eskolak Herri Kontseiluari. Baimena eman zitzaionez, aurten behintzat klase batzuk Kultur etxean emango dituzte.

Klase orduetan goiko ganbara eta jubilatuen gela erabiliko dituzte. Gela nagusia ere beharrezkoa izango dute ekintza zehatz batzuetarako.



Obserbatoriorainoko espaloia konpontzen

Udaleko langileak azkenik, garbitzen hasi ziren obserbatorioraino iristen den espaloia puska, baina lana ez dute bukatu. Dirudienez, lurjabe batek ez die baimenik ematen espaloia ondoan dituen zuhaizkak edo arbustuak kentzeko. Hiru urte dira espaloia hori garbitzea eskatu zela eta orain huskeri horrengatik geratu dituzte lanak. Bestalde, aspalditik eskatuta dago herritik Iturrietaraino espaloia egitea. Udalak ez du aurrera egingen baina datorren urteko aurrekontuetan sartzeko asmoa azaldu du. Oraingoan, lehendik zegoen espaloia zati hori txukuntzea onartu dute. Ea betetzen duten!

Aulki berriak

Igeldoko plazan bi aulki jarri dituzte jendea patxadaz egon dadin. Hori, iturri bat jartzea eta dema plazako uraren irteera konpontzea eskatu zitzaion udalari. Hirutik bat bete dute behintzat.

Gabonak

Urtero bezala gabon gauean eta urte zahar egunean haurrak baserriz baserriko ibiliko dira olentzerorekin batera. Aurten gainera, ziurtatuta dago olentzero bikaina, buru handia eta pipa hotz artean daukana. Horrezaz gain, gabon kantak entzuteko eta trikitalari eta panderojole gazteen saioa ikusteko aukera izango dugu.

Mus txapelketa hastear

Mus txapelketa hilaren 9an hasiko da. Iazko sariak izango dira eta izena emateko prezioa ere ez da aldatuko. Lanerako jendea ere behar da, beraz anima zaitzete.

Pilota eta dantza eskola


Haurrentzako pilota eta dantza eskola sortu berri dira. Eskolako gurasoen ekimena izan da eta Herri Kontseiluen laguntza izan du. Pilota arduradunak M. Luisa Lizeaga, Ramontxo, Juan Mari, Iñaki Goiko eta Ana Arratibel dira. Dantzakoak berriz, Loli Izagirre, Asun Balerdi, Iñaki eta Mikel Arruti dira. Pilotan 20 bat haur ari dira eta

dantzan berriz, 16 bat.

Lizardiko iturria...

Lizardiko iturri zaharra lehortu zuten frontoia estaltzeko lanak hasi zituztenean. Geroztik, ura jartzea eskatu zitzaion Udalari behin baino gehiagotan. Azkenean, hori egin ezezik, iturri

zaharra kendu eta beste berri bat jarri dute. Berria bai baina ez eroso. Ura ateratzeko lurrean dagoen botoia zantzu behar da baina botoia non dagoen ikustea ez da erraza, eta kanpoko jende asko edan ezinik geratzen da. Horrezaz gain, iturria altuegia denez, hurrek urik ezin dute edan. Hau da marka!



Jolasleku berriaren proiektua

Gisa honetako jolaslekua egiteko asmoa du Herri Kontseiluak Itsas Aurre etxeak bere atzealdean duen lur eremuan. Joan den urriaren 18an, auzolaneari garbitu zuten 28 lagunek sasi, lahar eta zikinkeriaz jositako lur saila. Orain Udalari proposatuko zaio proiektuarentzako dirulaguntza.

Auzolan desagertu eta dirua banatu

Herri Kontseilua martxan jarri zenean, 1978an sortutako Auzolan elkarteak ez zuen inolako zentzurik aurrera jarraitzeko eta desagertuerazi genuen. Hala eta guztiz ere, bere lana baloratzear gain, diru kontuak nola geratu diren argitu nahi dugu.

Herri kontseiluari emandako tresneria edo materiala

20 mahai, aulki ugari, jangelako tresnak, platerak, basoak, kubiurtuak..., parrila, txingen eta dema harri txikiaren %50 (beste erdia jai batzordearena).

DIRU KONTUAK

Diru-sarrerak

| | |
|----------------------------------|------------------|
| - 1994ko kutxan | 997.717 pezeta |
| - Herri bideak | 114.000 pezeta |
| - 1995eko mus txapelketa | 334.400 pezeta |
| - 1996ko mus txapelketa | 356.786 pezeta |
| - 1995ean Udalak emandakoa | 426.000 pezeta |
| - 1995ean Udalak auzoen sailetik | 57.960 pezeta |
| GUZTIRA: | 2.280.863 pezeta |

Diru-irteerak

| | |
|---------------------|------------------|
| - Herriko Batzordea | 860.000 pezeta |
| - Herri Kontseilua | 134.700 pezeta |
| - Festak | 75.000 pezeta |
| - Liburutegia | 25.000 pezeta |
| - Itsas Aurre | 300.000 pezeta |
| GUZTIRA | 1.394.700 pezeta |

Kontu orokorra

- Herri Kontseiluaren kutxan dagoena 886.163 pezeta

(Oharra) Asmo zehatzetarako mantendu zen eta gorde den dirua

| | |
|----------------|---------------|
| - Kirolak | 47.590 pezeta |
| - San Isidroak | 40.000 pezeta |
| - Baserriak | 50.000 pezeta |

Hauteskunde barrutia azkenik aldatu da


Aspalditik eskatuta zegoen Igeldotik hauteskunde barrutia aldatzea zenbait kasuetan ez baitzuen ez hankarik ez bururik. Hainbat eskaera egin eta gero, Udalak aldaketak onartu ditu.

Hauteskunde barrutitik kendu

- Faro edo Itsasargi pasealekua
- Igara pasealekutik: Otaño baserria, Barrenetxe
- Igeldo pasealekua
- Marbil bidea

Hauteskunde barruti berria

Bide hauetako etxe guztiak:
Arritxulo bidea, Kristobal Balenziaga,



Etume, Agiti bidea, Amezti, Bustinzuri bidea, Gudamendi bidea, Lapabide bidea, Lasarmendi bidea, Marabieta bidea, Murgil Bidea, Aita Orkolaga, Txalin bidea eta Tximistarri bidea.

Igara bidean: Eraunzeta haundi, Eraunzeta txiki eta Balda-zar.

Pilotegi bidean: Aristigieta, Aristondo, Ganbo, Ansotegi, Muno Zabala, Durandegi, Ganbo Berri, Otendua eta Buena Ventura.

Pokopandegi bidean: Vascongada aditivos, Igar plex, Atsedena, Pokopandegi, Ekogor txiki, Etumetxabal, Gurelesa, Errotatxo, Errotatxo berri, Ekogor haundi.

Azken bide honetan, Igeldotik Etumetxabal, bi Errotatxok eta bi Ekogor sartzea eskatu zen baina ez gainerakoak. Hala ere, Udalak gainerako etxe eta enpresak jartzea erabaki du.

ZAHARREN EGUNA (Irailak 21)

Diru-sarrerak

| | |
|-------------------|----------------|
| - Zozketa | 57.300 pezeta |
| - Euskadiko Kutxa | 10.000 pezeta |
| - Kutxa | 15.000 pezeta |
| - Txartelak | 90.200 pezeta |
| GUZTIRA | 172.500 pezeta |

Diru-irteerak

| | |
|------------------------------|----------------|
| - Txintxetak, papera, toalla | 900 pezeta |
| - Puruak | 3.700 pezeta |
| - Oroigarriak | 5.740 pezeta |
| - Patxarana, pattara | 5.550 pezeta |
| - Inpresoak | 20.900 pezeta |
| - Bertsolariak | 25.000 pezeta |
| - Pilotariak | 24.000 pezeta |
| - Mariskada | 15.000 pezeta |
| - Ogia | 1.120 pezeta |
| - Ura | 2.430 pezeta |
| - Toldoak | 4.000 pezeta |
| - Katering | 226.100 pezeta |
| GUZTIRA | 334.440 pezeta |

Kontu orokorra

- 161.900 pezetako galera. Herriko Tabernan ateratako diruarekin ordaindu da

Balorazioa: Bazkaltzera iaz baino jende gutxiago joan zen, batez ere egun berean beste ospakizun bat zegoelako. Antolakuntza ona izan zen arren, gauzak hobetu daitezkeela ikusi da.

SAN ISIDRO EGUNEKO JAIA (1997)

Diru sarrerak

| | |
|--------------------------|----------------|
| - Puruk | 1.200 pezeta |
| - Txartelak Txistun | 79.800 pezeta |
| - Txartelak Txapelan | 45.900 pezeta |
| - Txartelak Mendizorrotz | 37.400 pezeta |
| - Txartelak Xabier | 42.400 pezeta |
| - Zozketa | 32.950 pezeta |
| - Sahietsa | 4.200 pezeta |
| GUZTIRA | 243.850 pezeta |

Diru irteerak

| | |
|-------------------------|----------------|
| - Urdaiazpikoa | 10.550 pezeta |
| - Mantelak, serbilletak | 2.900 pezeta |
| - Bertsolariak | 30.000 pezeta |
| - Trikitixa | 10.000 pezeta |
| - Pilota | 20.000 pezeta |
| - Saihetsa | 46.200 pezeta |
| - Dema | 40.000 pezeta |
| - Ondasarte(Jana) | 25.550 pezeta |
| - Ikatza | 3.200 pezeta |
| - Inpresoak | 6.000 pezeta |
| - Txistu(Hainbat gauza) | 56.500 pezeta |
| - Puruk | 3.000 pezeta |
| GUZTIRA | 253.850 pezeta |

Kontu orokorra

- 10.000 pezetako galera. Falta den dirua lehengo urtean sobratutakotik hartu da.



Igeldoko Herri Kontseilua